# Xedapen Orokorrak

## KULTURA SAILA

## Zk-1600

AGINDUA, 2000ko martxoaren 24koa, Kultura sailburuarena, euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzen dituena.

Azaroaren 9ko 265/1990 Dekretuak bere 45. artikuluan ezartzen duenarekin bat, euskal kirol federazioek eta lurralde federazioek dagozkien hauteskunde-prozesuak burutu behar dituzte Udako Joko Olinpikoak egiten diren urte berean. Ondorioz, eta 2000. urtea olinpikoa dela kontuan izanik, federazio horiei aurten dagokie hauteskunde-prozesu horiek aurrera eramatea.

Euskadiko kirol federazioen hauteskunde-erregimena, orain artean, aipatutako 265/1990 Dekretuan xedatutakoaz gauzatu izan da, kirol federazio bakoitzari dagokion hauteskunde-erregelamenduaz osaturik inondik ere. Alabaina, kontua da arautegi horrek akats asko erakutsi dituela urteotan zehar, eta dagoeneko bat baino gehiago dira federazioetan sortutako arazoak. Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeak, halaber, berrikuntza garrantzitsuak biltzen ditu federazioetako hauteskundeen arloan, eta horiek guztiak gogoan izan behar dira.

Testuinguru horretan, eta 265/1990 Dekretuaren 82. artikuluan eta azken xedapenetatik lehenengoan berariaz jasotako aurreikuspenaren babesean, Agindu honetan finkatzen dira hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta federazioetako hauteskundeak egiteko irizpideak. Honen bidez, gaur egun dauden hutsuneak betetzea da asmoa, eta bide batez Auzitegiek finkatutako doktrinaz baliatzea, hainbat kirol federaziotatik jasotako iruzkinak aplikatzearekin batera.

Honen guztiaren indarrez, hurrena

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.–* Xedea eta aplikazio eremua

Agindu honen xedea euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregelamenduak prestatzeko eta 2000. urteari dagozkion hauteskundeak egiteko irizpideak finkatzea da.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

## N°-1600

ORDEN de 24 de marzo de 2000, de la Consejera de Cultura, por la que se establecen los criterios para la elaboración de reglamentos electorales y para la realización de elecciones de las federaciones deportivas vascas y territoriales.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 45 del Decreto 265/1990, de 9 de noviembre, las federaciones deportivas vascas y territoriales deben realizar los correspondientes procesos electorales en el año que se celebran los Juegos Olímpicos de Verano. En consecuencia, y considerando que el año 2000 es un año olímpico, les corresponde a dichas federaciones acometer tales procesos electorales.

El régimen electoral de las federaciones deportivas se ha regido hasta la fecha en el País Vasco por lo dispuesto en el citado Decreto 265/1990 y por los correspondientes reglamentos electorales de cada una de las federaciones deportivas. Sin embargo, lo cierto es que tal normativa ha evidenciado a lo largo de estos años numerosas insuficiencias y ello ha propiciado diversos conflictos federativos. Asimismo, la Ley 14/1998, del Deporte del País Vasco, contiene importantes novedades en materia de elecciones federativas que deben tenerse en consideración.

En dicho contexto, y al amparo de la previsión expresa contenida en el artículo 82 y en la disposición final primera del Decreto 265/1990, en esta Orden se establecen los criterios para la elaboración de los reglamentos electorales y para la realización de las elecciones federativas. Con ello se pretenden cubrir las lagunas existentes en la actualidad y aprovechar, asimismo, la doctrina sentada por los Tribunales así como las sugerencias recibidas desde algunas federaciones deportivas.

En su virtud,

DISPONGO:

CAPITULO I
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Objeto y ámbito de aplicación

El objeto de esta Orden es el establecimiento de los criterios para la elaboración de los reglamentos electorales y para la realización de los procesos de elección de las federaciones deportivas vascas y territoriales, correspondientes al año 2000.

*2. artikulua.–* Federazioen hauteskunde-prozesuen lege-erregimena.

Euskal kirol federazioen eta lurralde federazioen hauteskunde-erregimena egokitu egingo zaio 14/1998 Legean, 265/1990 Dekretuan, Agindu honetan bertan eta kasuan kasuko federazio estatutu eta erregelamenduetan xedatutakoari.

*3. artikulua.–* Hauteskundeak egiteko esparruak eta epeak.

1.– Agindu hau Euskadiko Autonomia Erkidegoko kirol federazioei aplikatuko zaie, baldin eta, urriaren 9ko 265/1990 Dekretuan xedatutakoaren arabera, urte olinpiko honetan zehar beren federazio-organoetarako hautaketa-prozesuak burutu behar badituzte.

2.–Lurraldeko kirol federazioek 2000ko urriaren 31 baino lehen izan beharko dituzte amaituta Biltzar Orokorrerako hautaketa-prozesuak.

3.–Euskal kirol federazioek 2001eko urtarrilaren 31 baino lehen baino lehen izan beharko dituzte amaituta beren hauteskunde-prozesu guztiak.

4.–Euskal kirol federazioek ezin izango dituzte beren hauteskunde-prozesuak abiatu 2000ko urriaren 31 baino lehen, kasuan kasuko kirol modalitatearen lurralde federazio guztiek dagoeneko beren hauteskunde-prozesuak amaitu dituztenean izan ezik.

5.– Finkatutako epean Biltzar Orokorrerako hauteskunde-prozesuak amaitu ez dituzten lurraldeko kirol federazioek ez dute inolako ordezkaritzarik izango dagokien euskal kirol federazioan, harik eta prozesuak amaitzen dituzten arte.

*4. artikulua.–* Egun baliodunak.

1.–Abuztua ez da baliodun izango hauteskunde ondorioetarako.

2.– Botazioak egiten diren egunetan ez da autonomi edo beheragoko lurralde mailako inolako kirol lehiaketa zein proba ofizialik izango.

*5. artikulua.–* Hauteskundeetarako erregelamenduak.

1.– Kirol federazioek hauteskunde-erregelamendu bat izango dute ezinbestez, eta Agindu honetan xedatutakoari egokiturik.

2.–Euskal kirol federazioen hauteskunde-erregelamenduaren proiektua kasuan kasuko Biltzar Orokorrak onartu beharko du, eta gehienez jota hogeita hamar egun naturaleko epean, Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzara igorri, honek behin betiko onespena eman diezaion.

3.– Lurraldeko kirol federazioen hauteskunde-erregelamenduaren proiektua kasuan kasuko Biltzar Orokorrak onartu beharko du, eta gehienez jota hogeita hamar egun naturaleko epean, dagokion Foru Aldundia-

*Artículo 2.–* Régimen jurídico de los procesos electorales federativos

El régimen electoral de las federaciones deportivas vascas y territoriales se ajustará a lo dispuesto en la Ley 14/1998, en el Decreto 265/1990, en la presente Orden y en los estatutos y reglamentos federativos correspondientes.

*Artículo 3.–* Ámbito y plazos de celebración de elecciones.

1.– La presente Orden será de aplicación a las federaciones deportivas de la Comunidad Autónoma de Euskadi que de conformidad a lo dispuesto en el Decreto 265/1990, de 9 de octubre, hayan de celebrar dentro del presente año olímpico los procesos de elección de sus órganos federativos.

2.– Las federaciones deportivas territoriales deberán tener finalizados sus procesos de elección de la Asamblea General antes del 31 de octubre de 2000.

3.– Las federaciones deportivas vascas deberán tener finalizados todos sus procesos electorales antes del 31 de enero de 2001.

4.– Las federaciones deportivas vascas no podrán iniciar su proceso electoral antes del 31 de octubre de 2000, salvo que todas las federaciones territoriales, de la correspondiente modalidad deportiva, hayan finalizado ya sus respectivos procesos electorales.

5.– Aquellas federaciones deportivas territoriales que no hayan finalizado sus procesos de elección de la Asamblea General en el plazo fijado carecerán de representación en su federación deportiva vasca hasta que finalicen aquéllos.

*Artículo 4.–* Días hábiles

1.– El mes de agosto no se considerará hábil a efectos electorales.

2.– Los días en que tengan lugar las votaciones no se celebrarán pruebas o competiciones deportivas de carácter oficial de ámbito autonómico o de ámbito territorial inferior.

*Artículo 5.–* Reglamentos electorales

1.– Las federaciones deportivas dispondrán necesariamente de un reglamento electoral que se acomodará a lo dispuesto en esta Orden.

2.– El proyecto de reglamento electoral de las federaciones deportivas vascas será aprobado por la Asamblea General respectiva y deberá ser remitido, en el plazo máximo de treinta días naturales, a la Dirección de Deportes del Gobierno Vasco para su aprobación definitiva.

3.– El proyecto de reglamento electoral de las federaciones deportivas territoriales será aprobado por la Asamblea General respectiva y deberá ser remitido, en el plazo máximo de treinta días naturales, al órgano

ren erakunde eskumendunera igorri, honek behin betiko onespena eman diezaion.

4.– Hauteskunde-erregelamendu berrirako edota berau aldatzeko proiektuak kasuan kasuko administrazio erakundeari igorri beharko zaizkio, hauteskunde-prozesua hasi baino hilabete bat lehenago gutxienez.

5.– Organo eskumendunak erabakiko du aurkeztutako proiektua legearekin bat ote datorren. Horrela baldin bada, erregelamendua onartu eta igorri egingo du Eusko Jaurlaritzaren Kirol Erakundeen Erregistrora, bertan inskribatzeko alegia. Horrela ez bada, dagokion kirol federazioari eskatuko dio aurkitutako akatsak zuzentzea. Hilabeteko epean ez bada horrelako administrazio-jakinarazpenik egiten, testua dagoen bezala onartutzat joko da.

6.– Kirol federazioen hauteskunde-erregelamenduek bete egin beharko dute federazioaren estatutuetan aurreikusitakoa, eta halatan, federazio bakoitzean hurrengo alderdi hauek arautu beharko dira:

– Biltzar Orokorreko kide kopurua, eta horien estamentukako banaketa. Kopuru hau estatutuetan finkatutakoa izango da, eta estatutuek kopururik zehazten ez badute, hauteskunde-erregelamenduak berak zehaztuko du, 41. artikuluan ezarritako mugak gainditzeke inolaz ere.

– Hauteskunde Mahaiaren eta Hauteskunde Batzordearen osaketa, izendapen eta eraketa modua, eskumenak eta funtzionamendua.

– Posta bidezko botoaren erregimena.

– Errekurtsoak eta erreklamazioak aurkezteko erregimena, eta horiek erabakitzeko prozedura.

– Hauteskunde-errolda egiteko irizpideak.

– Hauteskunde-egutegia egiteko irizpideak.

– Hautagai-zerrendak aurkezteko eta aldarrikatzeko baldintzak eta epeak.

– Hauteskunde-prozesuaren difusiorako erregimena.

– Biltzar Orokorra hautatzeko prozedura.

– Presidentea edota Zuzendaritza Batzordea hautatzeko prozedura.

– Bajak eta hutsuneak ordezkatzeko sistemak eta epeak.

## II. KAPITULUA
## HAUTESKUNDE BATZORDEA ETA HAUTESKUNDE MAHAIA

***6. artikulua.***– Hauteskunde Batzordearen eginkizunak.

1.– Federazio bakoitzeko Hauteskunde Batzordea da hauteskunde-prozesua bultzatzeko erakunde arduradu-

competente en materia de deportes de la Diputación Foral correspondiente para su aprobación definitiva.

4.– Los proyectos de nuevo reglamento electoral o de modificación del mismo deberán remitirse al órgano administrativo correspondiente con una antelación no menor a un mes respecto a la fecha de inicio del proceso electoral.

5.– El órgano correspondiente apreciará si el proyecto presentado es conforme a la legalidad. En caso afirmativo aprobará el reglamento y procederá a remitirlo, para su inscripción, al Registro de Entidades Deportivas del Gobierno Vasco. En caso contrario, requerirá a la federación deportiva la subsanación de los defectos detectados. Si en el plazo de un mes no hubiera notificación administrativa en tal sentido se entenderá aprobado el texto.

6.– Los reglamentos electorales de las federaciones deportivas deberán complementar lo previsto en los estatutos federativos de forma que queden regulados en cada federación los siguientes extremos:

– Número de miembros de la Asamblea General y distribución de los mismos por estamentos. Este número será el fijado por los estatutos, en caso de que éstos no precisasen tal número será el reglamento electoral quien lo defina, sin superar los límites marcados en el artículo 41.

– Composición, forma de designación y constitución, competencias y funcionamiento de la Mesa Electoral y de la Junta Electoral.

– Régimen del voto por correo.

– Régimen de la presentación de recursos y reclamaciones y procedimiento de resolución de los mismos.

– Criterios para la elaboración del censo electoral.

– Criterios para la elaboración del calendario electoral.

Requisitos y plazos de la presentación y proclamación de candidaturas.

– Régimen de difusión del proceso electoral.

– Procedimiento de elección de la Asamblea General.

– Procedimiento de elección del Presidente y/o de la Junta Directiva.

– Sistemas y plazos para la sustitución de las bajas y vacantes.

## CAPITULO II
## JUNTA ELECTORAL Y MESA ELECTORAL

***Artículo 6.***– Funciones de la Junta Electoral

1.– La Junta Electoral de cada federación es el órgano encargado de impulsar el proceso electoral y de

na; bide batez, berari dagokio prozesua modu egokian burutzea, azken buruan bermatu egin beharko baitu hauteskunde-prozesua Zuzenbideari egokitu zaiola.

2.– Hauteskunde Batzordearen eginkizunak izango dira hurrenak:

– Hautesle-errolda eta hauteskunde-egutegia onartzea.

– Aurkeztutako hautagai-zerrendak onartzea, aldarrikatzea eta argitaratzea.

– Hauteskunde Mahaia izendatzea.

– Hauteskunde Mahaiaren zein Batzordearen beraren erabakien aurka aurkezten diren inpugnazioak, erreklamazioak, eskariak eta errekurtsoak erabakitzea.

– Hauteskunde-aginduak interpretatzea eta aurkitzen diren arau-hutsuneak moldatzea.

– Hauteskunde-txartel, kartazal, hautagai-zerrendetarako inprimaki eta antzeko agirien eredu ofizialak onartzea.

– Hauteskunde-ekitaldiak kasuan kasuko federazioaren lokaletatik aparte egiteko baimena ematea.

– Egiten zaizkion kontsultei erantzuna ematea.

– Kasuan kasuko diziplina komiteari aditzera ematea diziplina-haustetzat har daitezkeen hauteskunde-prozesuarekin lotutako gertakizun guztiak.

– Hauteskundeen martxari zuzenean eragiten dioten kontu guztiak.

*7. artikulua.*– Hauteskunde Batzordearen osaketa.

Hauteskunde Batzordean 3 edo 5 kide izango dira; Presidentea eta Idazkaria adinez nagusia eta adinez gazteena izango dira, hurrenez hurren, non eta federazioak inolako arau-aurreikuspenik egin ez duen honetarako.

*8. artikulua.*– Hauteskunde Batzordearen izendapena.

1.– Hauteskunde Batzordeko kideak, eta hauen guztien ordezkoak, federazioaren estatutu edo arautegietan ezarritako prozedurari jarraiki izendatuko dira.

2.– Aipatutako federazio-estatutu edo erregelamenduetan horrelakorik jaso ezean, Hauteskunde Batzordeko kideak zozketa publiko baten bidez izendatuko dira, hautagai ez diren hautesleen artetik.

3.– Federazio-estatutu edo erregelamenduek ezin dute inondik ere onartu, federazioaren Presidenteak edo Zuzendaritza Batzordeak Hauteskunde Batzordeko kideak zuzenean izenda ditzaten.

*9. artikulua.*– Hauteskunde Batzordearen agintaldiaren iraupena.

1.– Hauteskunde Batzordearen eginkizunen iraupena lau urtekoa izango da; edonola ere, epe hau amaitu aurretik Biltzar Orokorrak kargutik kendu eta bes-

velar por su correcto desarrollo, garantizando en última instancia federativa el ajuste a Derecho del correspondiente proceso electoral.

2.– La Junta Electoral realizará las siguientes funciones:

– Aprobar el censo de electores y el calendario electoral.

– Admitir, proclamar y publicar las candidaturas presentadas.

– Designar la Mesa Electoral.

– Resolver las impugnaciones, reclamaciones, peticiones y recursos que se le presenten contra las decisiones de la Mesa Electoral y contra sus propias decisiones.

– Interpretar los preceptos electorales y suplir las lagunas normativas que se puedan detectar.

– Aprobar los modelos oficiales de las papeletas de voto, sobres, impresos para candidaturas y documentos análogos.

– Autorizar la realización de los actos electorales en locales diferentes a la sede de la federación respectiva.

– Resolver las consultas que se le formulen.

– Informar al comité disciplinario correspondiente sobre aquellos hechos relacionados con el proceso electoral que pudieran ser constitutivos de infracción disciplinaria.

– Cualesquiera otras cuestiones que afecten directamente al desarrollo de las elecciones.

*Artículo 7.*– Composición de la Junta Electoral

La Junta Electoral estará compuesta por 3 o 5 miembros, siendo su Presidente y Secretario, a falta de previsión normativa federativa, el de mayor y menor edad respectivamente.

*Artículo 8.*– Designación de la Junta Electoral

1.– Los miembros de la Junta Electoral y un número igual de suplentes serán designados por el procedimiento establecido en los estatutos o reglamentos federativos.

2.– En caso de que los citados estatutos o reglamentos federativos no contemplen ello, los miembros de la Junta Electoral serán designados por sorteo público entre los electores que no vayan a ser candidatos.

3.– En ningún caso los estatutos y reglamentos federativos pueden admitir la designación directa de los miembros de la Junta Electoral por el Presidente o Junta Directiva de la federación.

*Artículo 9.*– Duración del mandato de la Junta Electoral

1.– La duración del ejercicio de funciones de la Junta Electoral será de cuatro años, sin perjuicio de que la Asamblea General pueda destituirla y nombrar otra

te Hauteskunde Batzorde bat izendatzeko eskumena du.

2.– Kargutik atera den Hauteskunde Batzordeak lanean jarraituko du, harik eta Hauteskunde Batzorde berria izendatzen den arte.

*10. artikulua.–* Hauteskunde Mahaiaren eginkizunak.

1.– Federazio bakoitzaren Hauteskunde Mahaia da botazio eta zenbaketa faseak behar bezala garatzeko ardura duen organoa.

2.– Hauteskunde Mahaiaren eginkizunak izango dira hurrenak:

– Botazio bakoitza behar bezala garatzeko ardura bere gain hartzea, boto-emaileen nortasuna egiaztatuz eta hauen hautesle izaera argituz.

– Emandako botoen baliozkotasuna erabakitzea.

– Botoak kontatzea.

– Botazioekin edota zenbaketarekin lotutako beste edozein gorabehera erabakitzea.

*11. artikulua.–* Hauteskunde Mahaiaren osaketa.

Hauteskunde Mahaian hiru kide izango dira; Presidentea eta Idazkaria adinez nagusia eta adinez gazteena izango dira, hurrenez hurren, non eta federazioak inolako arau-aurreikuspenik egin ez duen honetarako.

*12. artikulua.–* Hauteskunde Mahaiaren izendapena.

Hauteskunde Batzordeko kideak, eta hauen guztien ordezkoak, Hauteskunde Batzordeak izendatuko ditu, zozketa publiko baten bidez, hautagai ez diren hautesleen artetik.

*13. artikulua.–* Hauteskunde Mahaiaren agintaldiaren iraupena.

1.– Hauteskunde Mahaiaren eginkizunen iraupena lau urtekoa izango da; edonola ere, epe hau amaitu aurretik Hauteskunde Batzordeak kargutik kendu eta beste Hauteskunde Mahai bat izendatzeko eskumena du.

2.– Kargutik atera den Hauteskunde Mahaiak lanean jarraituko du, harik eta Hauteskunde Mahai berria izendatzen den arte.

*14. artikulua.–* Bateraezintasunak.

Hauteskunde Batzordeko zein Hauteskunde Mahaiko kideen artean ez da, inolaz ere, hautagai gisa aurkeztuko den inor izango. Geroago, Hauteskunde Batzordeko edo Hauteskunde Mahaiko kideren bati egokitzen bazaio hautagai izatea, bere kargua utzi beharko du; horrixe dagokion ordezkoak hartuko du, hurrena, kargu huts hori.

*15. artikulua.–* Hauteskunde Mahaiaren eta Hauteskunde Batzordearen erabakiak.

1.– Hauteskunde Mahaia eta Hauteskunde Batzordea eratu ahal izateko, gutxienez bi kide beharko dira bertan. Hauteskunde Mahaiko edo Hauteskunde Ba-

Junta Electoral antes de la conclusión de dicho periodo.

2.– La Junta Electoral saliente continuará en funciones hasta la designación de la nueva Junta Electoral.

*Artículo 10.–* Funciones de la Mesa Electoral

1.– La Mesa Electoral de cada federación es el órgano encargado de velar por el correcto desarrollo de las fases de votación y escrutinio.

2.– La Mesa Electoral realizará las siguientes funciones:

– Velar por el correcto desarrollo de cada votación, comprobando la identidad de los votantes y su condición de electores.

– Resolver sobre la validez de los votos emitidos.

– Efectuar el escrutinio de los votos.

– Resolver cualquier otra incidencia relacionada con las votaciones y con el escrutinio.

*Artículo 11.–* Composición de la Mesa Electoral

La Mesa Electoral estará compuesta por tres miembros, siendo su Presidente y Secretario, a falta de previsión estatutaria o reglamentaria, el de mayor y menor edad respectivamente.

*Artículo 12.–* Designación de la Mesa Electoral

Los miembros de la Mesa Electoral y un número igual de suplentes serán designados por la Junta Electoral mediante sorteo entre los electores que no vayan a ser candidatos.

*Artículo 13.–* Duración del mandato de la Mesa Electoral

1.– La duración del ejercicio de las funciones de la Mesa Electoral será de cuatro años, sin perjuicio de que la Junta Electoral pueda destituirla y nombrar otra Mesa Electoral antes de la conclusión de dicho periodo.

2.– La Mesa Electoral saliente continuará en funciones hasta la designación de la nueva Mesa Electoral.

*Artículo 14.–* Incompatibilidades

En ningún caso podrán formar parte de la Junta Electoral y de la Mesa Electoral quienes vayan a presentarse como candidatos. Si esta condición recae posteriormente en alguno de los miembros de la Junta Electoral o de la Mesa Electoral deberá cesar y ocupar su lugar el suplente correspondiente.

*Artículo 15.–* Acuerdos de la Mesa Electoral y de la Junta Electoral

1.– Para constituirse la Junta Electoral y la Mesa Electoral será necesaria la presencia de, al menos, dos de sus miembros. En aquellos casos extraordinarios en

tzordeko kideetatik inor agertzen ez denean halako bilkura batera, federazioan eginkizunetan ari den administrazio organoak beharrezko erabakiak hartuko ditu aldi baterako; hauek, inolaz ere, Hauteskunde Batzordeak berretsi beharko ditu.

2.– Hauteskunde Batzordearen eta Hauteskunde Mahaiaren erabakiak botoen gehiengoaz hartuko dira. Berdinketa gertatuz gero, Presidentearen kalitate-botoa nagusituko da.

3.– Gehiengoaren aurkako botoak, baldin eta nominatiboki arrazoituak badira, Zuzenbidearen kontrako erabakiak hartzetik ondoriozta daitezkeen erantzukizunetatik salbu uzten dute.

4.– Hauteskunde Mahaiak hartzen dituen erabakien aurkako errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira Hauteskunde Batzordearen aurrean, bost egun naturaleko epean. Epe hori jakinarazpenaren biharamunetik kontatuko da, edota argitalpen egunaren biharamunetik bestela.

5.– Hauteskunde Batzordeak lehen instantzian hartzen dituen erabakien aurkako errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira Hauteskunde Batzordearen beraren aurrean, zazpi egun naturaleko epean. Epe hori jakinarazpenaren biharamunetik kontatuko da, edota argitalpen egunaren biharamunetik bestela. Errekurtso horiei buruzko erabakiak Kirol Justiziaren Euskal Komitearen aurrean errekurri daitezke, zazpi egun naturaleko epean.

6.– Premia gertatuz gero, Hauteskunde Batzordeak bere erabakiak posta arruntaren bidez, posta elektronikoaz, faxez, pc-konferentziaz, bideo-konferentziaz eta antzeko baliabide teknikoz baliatuz jakinaraz ditzake, kideek erabakiak jasoko dituzten bermea izanik eta berariaz onartzen badute. Horrelakoetan, Hauteskunde Batzordeko Idazkariak kasuan kasuko akta erredaktatuko du, federazioaren administrazio zerbitzuen laguntzaz, horrixe erantsirik eskutitz, fax eta antzeko agirien originalak.

7.– Hauteskunde Batzordearen eta Hauteskunde Mahaiaren erabakien berri emango zaie interesatuei, eta kasuan kasuko kirol federazioaren iragarki-taulan ere argitara emango dira.

*16. artikulua.*– Hauteskunde Mahaiko eta Hauteskunde Batzordeko kideei ordaintzea.

Hauteskunde Mahaiko eta Hauteskunde Batzordeko kideei halako diru-ordainketa bat egin dakieke, organo horiei dagozkien eginkizunak betetzearen truke hain justu. Kasuan kasuko kirol federazioaren Biltzar Orokorrak finkatuko ditu ordainketa horien baldintzak, izendapenaren aurretik inondik ere.

*17. artikulua.*– Hauteskunde Batzordearen eta Hauteskunde Mahaiaren aktak.

que ninguno de los miembros de la Junta Electoral o la Mesa Electoral acudan a la correspondiente sesión, el órgano de administración de la federación que se encuentre en funciones arbitrará transitoriamente las medidas urgentes oportunas que deberán ser ratificadas por la Junta Electoral posteriormente.

2.– Los acuerdos de la Junta Electoral y de la Mesa Electoral se adoptarán por mayoría de votos. En caso de empate, prevalecerá el voto de calidad del Presidente.

3.– Los votos contrarios a la mayoría, siempre que sean nominativamente motivados, eximirán de la responsabilidad que pudiera derivarse de la adopción de los acuerdos contrarios a Derecho.

4.– Los acuerdos que adopte la Mesa Electoral serán recurribles ante la Junta Electoral en el plazo de cinco días naturales. Dicho plazo se contará desde el día siguiente a su notificación o, en su caso, publicación.

5.– Los acuerdos que adopte la Junta Electoral en primera instancia serán recurribles ante la propia Junta Electoral en el plazo de siete días naturales. Dicho plazo se contará desde el siguiente a su notificación o, en su caso, publicación. Las resoluciones de dichos recursos serán recurribles ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva en el plazo de siete días naturales.

6.– En caso de urgencia, y siempre que exista garantía de recepción y así lo acepten expresamente sus miembros, la Junta Electoral podrá comunicar sus decisiones mediante la utilización de correo postal, correo electrónico, fax, pcconferencia, videoconferencia y medios técnicos análogos. En este supuesto, el Secretario de la Junta Electoral redactará, con el auxilio de los servicios administrativos de la federación, el acta correspondiente acompañando a la misma los originales de las cartas, fax y documentos análogos.

7.– Los acuerdos de la Junta Electoral y de la Mesa Electoral se notificarán a los interesados y se publicarán en todo caso en el tablón de anuncios de las federaciones deportivas correspondientes.

*Artículo 16.*– Remuneración de los miembros de la Mesa Electoral y de la Junta Electoral

Los miembros de la Mesa Electoral y de la Junta Electoral podrán ser compensados económicamente por el ejercicio de las funciones inherentes a tales órganos. Los términos de dicha remuneración deberán ser establecidos por la Asamblea General de la correspondiente federación deportiva con carácter previo a la designación.

*Artículo 17.*– Actas de la Junta Electoral y de la Mesa Electoral

Hauteskunde Batzordearen eta Hauteskunde Mahaiaren saio bakoitzaren akta egin beharko da. Bildutako kide guztiek izenpetu beharko dute akta hori.

*18. artikulua.*– Hauteskunde Batzordearen egoitzak.

Hauteskunde Batzordearen eginkizunak kasuan kasuko kirol federazioaren egoitzan burutuko dira. Aparteko kasuetan, eta kideek aho batez hartutako erabakia baldin bada, Hauteskunde Batzordeak beste lokal batzuetan burutu ahal izango ditu bere eginkizunak.

*19. artikulua.*– Hauteskunde Batzordeko eta Hauteskunde Mahaiko kideen betekizunak.

1.– Hauteskunde Batzordeko eta Hauteskunde Mahaiko kide izateko, pertsonek kargua onartu beharko dute.

2.– Kargua onartu behar horretatik libre eta inolako diziplina-erantzukizunik gabe geratuko dira beren lan, famili, ikasketa, osasun edo antzeko zertzeladak direla eta bere eginkizunak behar bezala betetzerik ez duten pertsonak.

*20. artikulua.*– Kirol federazioei aholkularitza.

Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritza eta Foru Aldundi bakoitzean kirol arloan eskumena duten organoak ahaleginduko dira euskal zein lurraldeko kirol federazioei laguntza ematen arlo honetan, behar diren materialak zein giza baliabideak eskainiz.

III. KAPITULUA
HAUTESKUNDE ERROLDA

*21. artikulua.*– Hauteskunde erroldaren edukia.

Hauteskunde erroldan jasota ageri da hautagai eta hautesle izateko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoen zerrenda, hain zuzen ere kasuan kasuko federazioan sufragiorako eskubidea aldi baterako edo behin betiko galdu ez dutenena.

*22. artikulua.*– Hauteskunde erroldako inskripzio bakoitzeko edukia.

Hauteskunde erroldako inskripzioak, gutxienez, izen-abizenak, nortasun agiria, eta federazio-lizentziaren zenbakia jasoko ditu pertsona fisikoen kasuan. Pertsona juridikoen kasuan, berriz, inskripzioak gutxienez sozietatearen izena, zerga-identifikaziorako kodea, eta federazio-afiliazioaren zenbakia bilduko ditu.

*23. artikulua.*– Hauteskunde erroldaren egitura.

1.– Hauteskunde errolda atalka antolatuko da, estamentuka.

2.– Pertsona fisiko bakoitza atal batean inskribatuta egongo da. Inor ezin da atal batean baino gehiagotan inskribatuta egon. Pertsona batek hainbat estamentutan baldin badu federazio-lizentzia, bat aukeratu be-

De cada una de las sesiones de la Junta Electoral y de la Mesa Electoral deberá levantarse un acta que firmarán todos los miembros asistentes.

*Artículo 18.*– Sede de la Junta Electoral

El ejercicio de funciones de la Junta Electoral tendrá lugar en la sede de la federación deportiva respectiva. En casos excepcionales, por acuerdo unánime de sus miembros, la Junta Electoral podrá realizar sus funciones en otros locales.

*Artículo 19 .*– Obligaciones de los miembros de la Junta Electoral y de la Mesa Electoral

1.– Las personas elegidas como miembros de la Junta Electoral y de la Mesa Electoral deberán aceptar el cargo.

2.– Quedarán dispensados de dicha obligación de asumir el cargo y exentos de responsabilidad disciplinaria aquellos federados que por razones laborales, familiares, académicas, de salud o análogas se encuentren impedidos para cumplir adecuadamente sus funciones.

*Artículo 20.*– Asesoramiento a las federaciones deportivas.

La Dirección de Deportes del Gobierno Vasco y los órganos competentes en materia de deportes de cada una de las Diputaciones Forales procurarán ayudar en esta materia a las federaciones deportivas vascas y territoriales, respectivamente, con los medios humanos y materiales oportunos.

CAPITULO III
CENSO ELECTORAL

*Artículo 21.*– Contenido del censo electoral

El censo electoral contiene la relación de aquellas personas físicas y jurídicas que reúnen los requisitos para ser electores y elegibles, y que no se hallen privados, temporal o definitivamente, del derecho de sufragio en la correspondiente federación.

*Artículo 22.*– Contenido de cada inscripción del censo

La inscripción en el censo electoral incluirá, como mínimo, en el caso de las personas físicas, el nombre, apellidos, documento nacional de identidad y número de licencia federativa. En el caso de las personas jurídicas, la inscripción incluirá, como mínimo, la denominación social, el número de identificación fiscal y el número de afiliación federativa.

*Artículo 23.*– Estructura del censo electoral

1.– El censo electoral se ordenará en secciones por estamentos.

2.– Cada persona física estará inscrita en una sección. Nadie podrá estar inscrito en varias secciones. Si una persona ostenta licencia federativa por varios estamentos deberá optar por uno de ellos. En el supuesto de que

harko du. Egoera honetan dagoen pertsona batek ez badu aukeraketa hau berariaz egiten, automatikoki geratuko da lizentzia kopururik txikiena duen estamentuari atxikita.

*24. artikulua.–* Hauteskunde erroldaren onarpena.

1.– Hauteskunde errolda onartzeko, Hauteskunde Batzordeak kontuan hartuko ditu erroldak, fitxategiak, estatistika-datuak, zigor-erregistroak eta abar; hauek guztiak, Hauteskunde Batzordeak berak eskatuko dizkio federazioaren administrazio-organoari.

2.– Euskal federazio guztiek eta lurraldekoek lankidetzan aritu beharko dute, dagokien Hauteskunde Batzordeak eskatzen dien informazio eta dokumentazio guztia ahalik eta azkarren igortzearren.

*25. artikulua.–* Hauteskunde erroldaren difusioa.

Kirol federazio bakoitzaren hauteskunde erroldaren zabalpen egokia bermatzearren, errolda onartzen duen Hauteskunde Batzordeak iragarki-taulan jarri beharko du errolda bera; bide batez, errolda behar bezala ezagutzeko egoki diren neurri osagarri guztiak hartu beharko ditu.

*26. artikulua.–* Hauteskunde erroldari alegazioak.

1.– Interesatuek bost eguneko epea izango dute Hauteskunde Batzordeak behin-behinean onartutako hauteskunde erroldari buruzko alegazioak egiteko. Alegazio hauek Hauteskunde Batzordearen aurrean aurkeztuko dira, eta horrexek erabakiko du bidezkoak diren ala ez, behin betiko onespenaren unean.

2.– Errekurtsoak erabaki ondoren, eta hauteskunde errolda behin finkatu eta gero, ez da inolako inpugnaziorik egiterik izango erroldaren inguruan hauteskunde prozesuaren beste faseetan zehar, auzi bidean abia daitezkeen jardueren kaltetan izan gabe.

IV. KAPITULUA
POSTA BIDEZKO BOTOA

*27. artikulua.–* Posta bidezko botoa onartzeko kasuak.

Hautesleek posta bidez eman ahal izango dute botoa, hauteskunde erregelamenduetan zehaztuko diren aparteko kasuetan; hala eta guztiz ere, Presidentea hautatzeko unean ez da modu honetaz baliatzerik izango, ezta euskal kirol federazioen Biltzar Orokorrerako kideak hautatzeko lurraldeko kirol federazioen Biltzar Orokorrean burutzen den ekitaldian ere.

*28. artikulua.–* Posta bidezko botoa ematea.

1.– Botazioaren bezperan federazioan dauden posta bidezko botoak onartuko dira.

2.– Botoetarako kartazalak eta txartelak Hauteskunde Batzordeak onartu beharko ditu aurrez.

una persona que se encuentre en tal situación y no ejercite tal derecho de opción se adscribirá automáticamente al estamento con menor número de licencias.

*Artículo 24.–* Aprobación del censo electoral

1.– Para la aprobación del censo electoral la Junta Electoral tomará en consideración los censos, ficheros, datos estadísticos, registros de sanciones y demás documentación que sea solicitada por dicha Junta Electoral al órgano administrativo de la federación.

2.– Todas las federaciones territoriales y vascas deberán colaborar recíprocamente y remitir con la mayor diligencia la información y documentación que les sea requerida por la correspondiente Junta Electoral.

*Artículo 25.–* Difusión del censo electoral

Al objeto de garantizar la correcta difusión del censo electoral de cada federación deportiva la Junta Electoral que apruebe aquél deberá exponer el mismo en el tablón de anuncios y adoptar aquellas medidas complementarias que resulten precisas para el debido conocimiento del mismo.

*Artículo 26.–* Alegaciones sobre el censo electoral

1.– Los interesados dispondrán de un plazo de cinco días naturales para realizar las alegaciones pertinentes sobre el censo electoral aprobado provisionalmente por la Junta Electoral. Las alegaciones correspondientes se formularán ante la Junta Electoral y ésta resolverá si procede o no la alegación, en el momento de la aprobación definitiva.

2.– Resueltos los recursos y firme el censo electoral no podrán realizarse impugnaciones de ningún tipo referidas al mismo en otras fases del proceso electoral, sin perjuicio de las actuaciones que puedan acométese en vía jurisdiccional.

CAPITULO IV
VOTO POR CORREO

*Artículo 27.–* Supuestos admisibles de voto por correo.

Los electores podrán emitir su voto por correo en aquellos supuestos excepcionales a determinar en los correspondientes reglamentos electorales, aunque esta modalidad no podrá utilizarse para la elección del Presidente y para la elección de los miembros de la Asamblea General de las federaciones deportivas vascas en el seno de la Asamblea General de las correspondientes federaciones deportivas territoriales.

*Artículo 28.–* Ejercicio del voto por correo.

1.– Se admitirá el voto por correo que se encuentre en la federación el día anterior a la correspondiente votación.

2.– Los sobres de los votos y las papeletas para los mismos deberán estar aprobados por la Junta Electoral.

3.– Botazioaren unera arte, botoak dituzten kartazalak federazioaren idazkaritzan gordeta egongo dira, Hauteskunde Mahaiari emateko unea heldu arte.

4.– Aurreikusitako epea igaro eta gero jasotzen diren kartazalak puskatu egingo ditu Hauteskunde Mahaiak, zabaldu gabe.

5.– Posta bidezko botoa bidaltzeko, posta zerbitzu publikoaz edo mezulari zerbitzu pribatuez balia daiteke.

6.– Posta bidezko botoak dituzten kartazalak hautestontzian sartuko dira botazio guztiak amaitu eta gero, Hauteskunde Mahaiko kideek botoa eman aurretik inondik ere.

7.– Kasuan kasuko federazio-erregelamenduan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten botoak baliogabetu egingo dira. Halaber, aurrez pertsonalki botoa eman duten hautesleen posta bidezko botoak puskatu egingo dira.

V. KAPITULUA
INTERBENTOREAK

*29. artikulua.*– Interbentoreak izendatzea.

1.– Hautagaiek adinez nagusia den eta bere gaitasun zein eskubideez baliatzeko moduan dagoen edozein pertsonaren aldeko ahalordeak eman ahal izango dituzte, interbentore gisa aritu ahal izan daitezen, hautagaien beren izenean, hauteskunde ekitaldietan.

2.– Ahalorde hau notario baten aurrean eman beharko da, edota kirol federazioaren idazkariaren aurrean, federazioaren erregelamenduan ezarritako baldintzak betez.

*30. artikulua.*– Interbentoreen eginkizunak.

Interbentoreen eginkizun bakarra botazio ekintza bera eta boto zenbaketa ikustea izango da; edonola ere, eskubidea izango dute hauteskunde ekitaldiaren garapenari buruz egiten dituzten adierazpenak aktan jasota gera daitezen.

*31. artikulua.*– Hauteskunde Mahaiaren aurrean kreditatzea.

Interbentoreek beren izaera egiaztatu beharko dute Hauteskunde Mahaiaren aurrean; horretarako, ahalordea eta Nortasun Agiri Nazionala, pasaportea edo antzeko identitate-agiriren bat aurkeztu beharko dituzte. Hauteskunde Mahaiak aukera emango die interbentore horiei, botazioa eta boto zenbaketa gauzatzen diren tokian egoteko.

VI. KAPITULUA
BALIABIDEAK

*32. artikulua.*– Errekurtsoak aurkeztea.

Hauteskunde Mahaiaren eta Hauteskunde Batzordearen erabakien aurkako errekurtsoak Hauteskunde Batzordeari berari zuzenduko zaizkio, Kirol Justiziako

3.– Hasta el momento de la votación, los sobres con los votos estarán custodiados en la secretaría de la federación hasta su entrega a la Mesa Electoral.

4.– Los sobres que se reciban después del plazo previsto serán destruidos por la Mesa Electoral sin abrirlos.

5.– El envío del voto por correo podrá hacerse por el servicio público postal o por servicios privados de mensajería.

6.– Los sobres con los votos por correo se depositarán en la urna al finalizar todas las votaciones, antes de que voten los miembros de la Mesa Electoral.

7.– Los votos que no contengan los requisitos establecidos en el reglamento federativo correspondiente serán anulados. Asimismo, serán destruidos los votos por correo de aquellos electores que hubiesen realizado con anterioridad la votación personalmente.

CAPITULO V
INTERVENTORES

*Artículo 29.*– Nombramiento de interventores

1.– Los candidatos podrán otorgar poder a favor de cualquier persona, mayor de edad y en plenitud de sus facultades y derechos, para que ostente en calidad de interventor su representación en los actos electorales.

2.– El apoderamiento deberá realizarse ante Notario o ante la secretaría de la federación deportiva con arreglo a los requisitos establecidos en el reglamento federativo.

*Artículo 30.*– Funciones de los interventores

La función de los interventores se limitará a presenciar el acto de la votación y del escrutinio, con derecho a que se recojan en el acta correspondiente las manifestaciones que desee formular sobre el desarrollo del acto electoral.

*Artículo 31.*– Acreditación ante la Mesa Electoral

Los interventores deberán acreditar su condición ante la Mesa Electoral exhibiendo el apoderamiento y el Documento Nacional de Identidad, pasaporte o documento identificativo análogo. La Mesa Electoral permitirá a dichos interventores permanecer en el local donde se desarrollan la votación y el escrutinio.

CAPITULO VI
RECURSOS

*Artículo 32.*– Presentación de recursos

Los recursos frente a los acuerdos de la Mesa Electoral y de la Junta Electoral deberán dirigirse a la propia Junta Electoral, salvo los que competan al Comité Vas-

Euskal Komiteari dagozkion kontuetan izan ezik; errekurtsoak aurkezteko epea zazpi egunekoa izango da.

*33. artikulua.–* Errekurtsoak erabakitzea.

1.– Hauteskunde Batzordeak erabakia hartuko du, gehienez 14 egun naturaleko epean.

2.– Erabakiak oso-osorik edo zati batean onar ditzake errekurtsoan azaldutako asmoak, edota besterik gabe onartezintzat jo.

3.– Errekurtsoa ez bada berariaz erabakitzen ezarritako epean zehar, ezetsitzat jo ahal izango da, eta halaz zabalik geratuko da Kirol Justiziako Euskal Komitera jotzeko bidea.

4.– Hauteskunde Batzordeak hauteskunde errekurtsoak erabakiz hartzen dituen akordioek amaitutzat ematen dute federazio-bidea, eta Kirol Justiziako Euskal Komitearen aurrean errekurtsoa jartzeko aukera ematen dute, zazpi egun naturaleko epean betiere.

5.– Organo eskudunen hauteskunde-erabakiak gauzatzea federazioaren Hauteskunde Batzordearen eginkizuna da, kasuan kasuko federazio organoen lankidetzaz.

6.– Hauteskunde Batzordearen erabakiak exekutiboak izango dira.

7.– Halako ekintza batzuk baliogabetuz gero, bere horretan mantenduko dira irregulartasuna bete ez balitz ere bere edukiaz berdin-berdin garatuko ziren ekintzak eta izapideak.

## VII. KAPITULUA
## HAUTESKUNDE PROZESUAREN DIFUSIOA

*34. artikulua.–* Hauteskunde Batzordeak hauteskunde-prozesuaren difusioan duen eskumena.

Hauteskunde Batzorde bakoitzak bermatu beharko du kasuan kasuko kirol federazioaren kide guztiek behar besteko informazioa izatea hauteskunde-prozesuari buruz, eta halaz, dagozkien eskubideak erabili ahal izan ditzaten.

*35. artikulua.–* Administrazio organoaren eginkizuna.

Hauteskunde-prozesu batean sartuta dagoen kirol federazioan jardunean den administrazio organoak behar adina material zein giza baliabide eskaini beharko dizkio Hauteskunde Batzordeari, hauteskunde-prozesuaren difusio edo zabalpen egokia lortzearren inolaz ere.

*36. artikulua.–* Iragarki-taula eta kopiak.

1.– Hauteskunde-prozesu bakoitzari dagozkion agiri eta akordio guztiak federazio bakoitzaren iragarki-tauletan azaldu beharko dira, derrigorrez. Euskal federazioen hauteskunde-prozesuen kasuan, jendaurrean jartze hau lurraldeko federazioen iragarki-tauletan ere zertuko da.

co de Justicia Deportiva, en el plazo de siete días naturales.

*Artículo 33.–* Resolución de los recursos

1.– La Junta Electoral dictará resolución en el plazo máximo de 14 días naturales.

2.– La resolución estimará en todo o en parte, o desestimará, las pretensiones formuladas en el recurso, o declarará su inadmisión.

3.– En el supuesto de que el recurso no fuera resuelto expresamente en el plazo establecido podrá considerarse desestimado, quedando expedita la vía del Comité Vasco de Justicia Deportiva.

4.– Las resoluciones de la Junta Electoral que resuelven recursos electorales agotan la vía federativa y son susceptibles de recurso ante el Comité Vasco de Justicia Deportiva, en el plazo de siete días naturales.

5.– La ejecución de las resoluciones electorales de los órganos competentes corresponde a la Junta Electoral de la federación con la colaboración de los órganos federativos pertinentes.

6.– Las decisiones de la Junta Electoral tendrán carácter ejecutivo.

7.– La anulación de determinados actos llevará implícita la conservación de los actos y trámites cuyo contenido se hubiera mantenido igual de no haberse cometido la irregularidad.

## CAPITULO VII
## DIFUSION DEL PROCESO ELECTORAL

*Artículo 34.–* Competencia de la Junta Electoral sobre difusión del proceso electoral

Cada Junta Electoral deberá garantizar que todos los miembros de la federación deportiva correspondiente queden suficientemente informados sobre el proceso electoral y puedan ejercer los derechos que les correspondan.

*Artículo 35.–* Deber del órgano de administración

El órgano de administración, en funciones, de la federación deportiva que se encuentre inmersa en un proceso electoral deberá proporcionar a la Junta Electoral los recursos humanos y materiales al alcance de la federación al objeto de conseguir una difusión suficiente del proceso electoral.

*Artículo 36.–* Tablón de anuncios y copias

Será obligatoria la exposición en los tablones de anuncios de cada federación de todos los documentos y acuerdos relativos al correspondiente proceso electoral. En el caso de los procesos electorales de las federaciones vascas la exposición se verificará también en los tablones de anuncios de las federaciones territoriales.

2.– Kirol federazio bakoitzean hautesleen eskura jarriko dira hauteskunde-prozesuan diren agiririk garrantzitsuenen kopiak, behar adinakoak, esaterako egutegi, errolda eta hauteskunde-erregelamenduarenak.

*37. artikulua.*– Hauteskunde-egutegiaren iragarpena.

Hauteskunde-prozesuaren aurretiko denboraldian hamar milioi (10.000.000) pezetatik gorako sarrera eta irteera aurrekontua duten kirol federazioek hauteskunde-egutegiaren laburpen bat argitaratu beharko dute dagokien Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarian, lurralde federazioen kasuan; euskal federazioen kasuan, berriz, Lurralde Historiko bakoitzean hedapen handiena duen egunkarian.

*38. artikulua.*– Publizitatea Interneten.

Interneten web orri bat duten kirol federazioek bertan sartu beharko dituzte hauteskunde-erroldaren testuak, hauteskunde-egutegia eta hauteskunde-erregelamendua.

*39. artikulua.*– Administrazioari jakinaraztea.

Kirol federazioek hauteskunde-erroldaren, hauteskunde-egutegiaren eta hauteskunde-erregelamenduaren kopia bana igorriko diote dagokion administrazio-organoari, hauteskunde-prozesuaren difusio osagarria zertzeko.

VIII. KAPITULUA
BILTZAR OROKORRA HAUTATZEKO PROZEDURA

LEHEN ATALA
XEDAPEN OROKORRAK

*40. artikulua.*– Biltzar Orokorraren osaketa.

Biltzar Orokorraren osaketan sartuko dira hurrenak:

1.– Lurralde federazioetan, beren estamentuen ordezkariak.

2.– Euskal federazioetan, lurralde federazioen estamentuen ordezkariak.

*41. artikulua.*– Biltzar Orokorraren kide kopurua.

1.– Lurralde federazioen Biltzar Orokorraren kide kopurua kasuan kasuko estatutuetan finkatuko da; edonola ere, sekula ez da berrehundik gorakoa izango.

2.– Euskal federazioen Biltzar Orokorraren kide kopurua kasuan kasuko estatutuetan finkatuko da; edonola ere, sekula ez da hirurehundik gorakoa izango.

*42. artikulua.*– Estamentuen presentzia portzentuala.

1.– Euskal federazioen eta lurralde federazioen Biltzar Orokorraren osaketan, klub, kirol elkarte, kirola-

En cada federación deportiva deberán ponerse a disposición de los electores suficientes copias de los documentos más importantes del proceso electoral, como el calendario, el censo y el reglamento electoral.

*Artículo 37.*– Anuncio del calendario electoral

